

BOTERE PERTSONALA, LIDERGOA, PARTE-HARTZE SOZIALA ETA TALDE LANA

HAUR HEZKUNTZA



IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Ikasleekin jarduerak egiteko ideia hauekin proposamen ireki eta moldagarria egin nahi da. Ideiak beraien artean konbinatzeko modukoak dira. Jarduera hauek aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independentean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa. Ideiak hezkuntza etapaka aurkeztu eta iradoki dira, antzeko esperientziak egin dituzten ikasleen adinaren arabera. Nolanahi ere, horiek guztiak **beste adin bateko ikasleen interes eta ezaugarriari egokitzeko modukoak dira.**

"GAUR NIK KONTATUKO DUT"

Gune eta denbora-tarte bat emanen diogu haur bakoitzari egoera bat konta dezan; egoera hori benetakoa edo gezurrezkoa izan daiteke:

- ▶ Ikastetxetik kanpo bere bizitzan gertatu den istorio bat: bere familiar, bere auzoan, herrian...
- ▶ Bere etxean, kultura-etxean... ikasi duen ipuin bat.
- ▶ Ikusi dituen marrazki bizidunak edo film bat.

Neskatoek eta mutikoek **hitza hartu eta protagonismoa bereganatu behar dute, eta gainerakoek ikaskide baten rola errespetatu behar dute.** Bigarrena bezain garrantzitsua da lehena. Jarduera aprobeztatu behar dugu ondoko hauek aztertzeko:

- ▶ Edukia: zer istorio mota kontatzen diren, neskatoak eta mutikoak protagonistak ote diren eta, hala ez bada, nor diren, zer protagonismo mota duten (aktiboa, pasiboa, banakakoa, taldekoa...), etab. Eta horretan guztian ba ote den desberdintasunik neskatoen eta mutikoen artean.
- ▶ Forma: neskatoek eta mutikoek hitza hartzeko zailtasun berak ote dituzten, hitz egiten ari direnean berdin errespetatzen ote dituzten, nork eteten duen gehiago eta nork gutxiago, zer nahiago izaten duten kontatzea, nork entzuten duen eta nork ez...

"TRAFIKOA ZUZENTZEN"

Trafiko zirkuitu bat prestatu behar dugu konoekin eta sokekin, mahaiekin eta aulkiekin, zorian marraztuz. Neskato edo mutiko bat trafikoko agentea izanen da eta trafikoa antolatuko du eta autoetan, motorretan, oinez... joanen diren ikaskideak zuzenduko ditu. Esanen die nondik joan daitezkeen, noiz eta non geldi daitezkeen, batzuei pasatzen utziko die eta beste batzuk geldiaraziko ditu...

Xedea da, batetik, **zuzenduz zuzentzen ikastea**; ikastea ikaskideei esaten zer egin behar duten, ongi edo gaizki ari diren... Hau da, gainerakoekin jolasak koordinatzen eta zuzentzen. Eta, bestalde, ikasi

antzerki pixka bat

Adin handiagoko ikastaldeekin, "Gaur nik kontatuko dut" jarduera **kontatzen ari diren istorioa antzeztuz** osa daiteke. Horretarako, istorioa kontatzen duenak bere ikasgelako neskatoei eta mutikoei laguntza eskatuko die, elkarlanean aritzeko.

Adibidez, etxalde edo landetxe batera egindako bisitan gertatutakoa kontatzen badu, istorioaren kontalariak ikaskideei esanen die bisitariak, etxaldeko langileak, etxaldeko animaliak, egindako ekintzak eta jarduerak eta abar antzeztu behar dituztela. Orobat, esanen die nola mugitu eta jardun behar duten, etab.

Hala, **hitza hartzeaz gainera, jarduerak eta ikaskideak antolatuko ditu** eta antolaketa, koordinazio, lidergo, zuzendaritza... gaitasunak sustatuko dira.

zuzentzen ikasi, zuzenduz

Trafikoa zuzentzean egin den modu berean eta ikasleek antolatzen antolatuz ikas dezaten eta buruzagi izaten buruzagi izanez eta..., guneak eta denborak prestatu ditzakegu **neskatoak eta mutikoak "irakasle" aritzeko.** Horretarako, egunean minutu batzuk har ditzakegu neskato edo mutiko batek irakaslearen rola hartzeko, eta denbora-tarte horretan gainerako ikaskideei esateko zer egin behar duten: "korro bat egin behar dugu", "orain marraztu behar dugu", "jostailuak bildu behar ditugu"...

Are zehatzago egin dezakegu: adibidez, psikomotrizitateko jarduera bat edo erlaxatzeko ariketa batzuk koordinatzeko eskatuko diegu. Horretarako, hone-

lako jarraibideak eman beharko dituzte: "orain, etzan", "esku bat goratu behar da", "mugimendu hau bost aldiz egin"...

Era berean, asteko egun batean gosaria txandaka presta dezakete (fruta ekarri, banatu...), jolasaldiko jolasak antola ditzakete, etab.

txandaketa roletan

Urteek aurrera joan ahala neskatoek gune publikoa erabiltzeari uzten diote. Errealitate horri aurre egiteko, ezinbestekoa da jarduera hauetan guztietan **neskatoek eta mutikoen rola txandakatzea**: neskatoek gazte-gaztetatik hitza hartu behar dute, parte hartzeko, gauzak kontatzeko, zuzentzeko, antolatzeko, agintzeko, buruzagi izateko, espazioa erabili eta okupatzeko... eta mutikoen ere entzuten, eta hitz egiteko txanda, hitza eta beste ikaskide batzuen oharrak eta aginduak errespetatzen ikasi behar dute, eta bereziki gainerako neskatoenak, jarduera horren buru denarekin elkarlanean aritzen...

lider izan, parte hartu... klabe maskulinoan?

Egoerak aztertuz, bi gai hauek berariaz landu eta behatu behar ditugu:

- Parte hartzerakoan neskatoen eta mutikoen artean desberdintasunik dagoen. Jokoa zuzentzeko orduan, neskatoek mutikoen baino erresistentzia handiagoa jartzen dute? Boluntario izateko, neskatoek eta mutikoen berdin eskaintzen dute beren burua? Biek berdin egiten dute? Jokoa zuzentzerakoan eta aginduak ematerakoan doinu berean hitz egiten dute? Beren ikaskideen oharrak konfiantza berarekin entzuten eta jarraitzen dituzte?...

- Lidergoa erabiltzen den egoerak irudikatzerakoan, agintzen badute, aginduak ematen badituzte..., egin egiten dute **estilo maskulinoarekin** (ahotsa goratzen dute, gehiago egiten dute oihi, ez dute barrerik egiten, ez dute galdetzen...) edo **estilo femeninoarekin** (galdetzen dute, iradokizunak egiten dituzte, irribarre egiten dute...) eta neskatoentzako eta mutikoentzako komunikazio estilo baten eta beste baten ondorioak.

behar dute beste pertsona batzuen oharrak errespetatzen eta haien egingizuna baloratzen eta errespetatzen.

Jarduera hau beste egoera mota batzuetan (talde lana, antzerkia, kirola...) antolatzerik bada ere, interesgarria da **ibilgailuak gidatzeko eta trafikoak zuzentzeko esparruan espresuki** egitea, jarduera horiek mutiletan nesketan baino gehiago sustatzen baitira eta gaur egun gizonezkoen eguneroko bizitzan emakumezkoen baino gehiago ageri baita.

"NI ZURE BEGIAK IZANEN NAIZ; ZU, NIRE HANKAK ETA ESQUAK"

Bikoteka, edo talde handiagoetan eskutik harturik katea eginez, esate baterako eserita edo aulki baten gainean zutik dagoen neskato bat edo mutiko bat -begiak zabalik, baina tokitik ezin mugiturik- gainerako taldeki-dei zuzenduko zaie eta esanen die (betiere, katea errespetatuz) lurretik zerbait hartu behar dutela, objektu bat toki zehatz batean utzi behar dutela, beste pertsona bat bilatu behar dutela... izkina batean, aro batean, kutxa batean, apalategi batean, etab. Taldekide horiek begiak estalirik izanen badituzte ere toki batetik bestera mugitzeko aukera izanen dute.

Jolas honekin ikasleek **taldean lan egiten ikastea** nahi dugu, rol desberdinetatik abiatu elkarlanean aritzea, batzuetan zuzendari izanez eta beste batzuetan beste pertsona batzuen oharrak segituz. Garrantzitsua da neskatoek zein mutikoen jarraibideak ematea. Eta nola egiten duten ikusteak, zer komunikazio estilo erabiltzen duten, kasu bera egiten ote zaien, jarduera disruptiborik ote dagoen, ongi edo gaizki egiten dutela esaten ote zaien, norik egiten duen ongien...

"ESPAZIOKO FORMA ASKOTAKO AMEBA"

Ikasgela osoa zelula bakarra gara. Elkar ukitzen dugu eta batera mugitzen gara. **Gure ikasleei jarraibideak emanen dizkiegu gunea erabili eta modu batean baino gehiagotan okupa dezaten**: "ilaran jarriko gara ahalik eta espaziorik txikiena hartuz", "ilaran jarriko gara ahalik eta espaziorik handiena hartuz", "elkarri eskua emanen diogu eta zirkulu handi bat egingen dugu", "orain neskatoak, barnean, ahalik eta espaziorik handiena hartuz", "orain mutikoak, barnean, ahalik eta espaziorik txikiena hartuz", "eseri", "etzan", etab.

Ikasi behar dugu guneak zer esan nahi duen, gunea esploratu behar dugu eta **gunea okupatzeak edo ez okupatzeak** zer esan nahi duen azaldu behar dugu, konturatu behar dugu pertsonen buruz dugun ikuspegia aldatzen dela pertsona horiek jartzen diren tokiaren arabera, nola jartzen garen (ilaran, korroan...), zein desberdina den izkinetan edo erdian jartzea, zutik edo lurrian... Argazkiak atera ditzakegu gunearen okupazio desberdinak hobeki aztertzeko eta horrek guztiak zer sententzia eta sentimendu sortzen dugun komenta dezakegu ikasleekin.

"HITZIK GABE ESAN"

Mimikaren bitartez honelako egoera edo ekintzak irudikatzea: agintzea, agur egitea, errieta egitea, kontsolatzea, laguntzea, lasai eseritzea, artega eseritzea, hitz egitea, eztabaidatzea, konbentzitzea... Pertsonaren presentziarekin eta boterearekin, lidergoarekin, talde lanarekin... zerikusia duen **hizkuntza ez-ahozkoa ikasi eta aztertu** behar da. Batzuek eta besteek parte hartzean eta erabakiak hartzean duten **estilo "maskulinoari" edo "femeninoari"** erreparatu behar diogu. Nola agintzen da?; nola egiten da agur?; bestela egin daiteke?; emaitza berak lortuko dira?; okerragoak?; hobeak?; zergatik?...

BOTERE PERTSONALA, LIDERGOA, PARTE-HARTZE SOZIALA ETA TALDE LANA

LEHEN HEZKUNTZA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEA

Haur Hezkuntzarako adierazitako jarduerak oso erraz egin daitezke etapa honetako ikasleekin baldin eta adinari eta Lehen Hezkuntzako curriculumari egokitzen bazaizkio. Jarraian aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko.

"GURE ESKOLAREN ERRADIOGRAFIA"

Gure ikastetxean "nor non dagoen" ikusaraztea da kontua, eskolako esparruak sexuaren arabera bereiziz eta berariaz **emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia ikastetxean erantzukizuneko eta erabakiak hartzeko postuetara** lotuz. Lehenik, lana taldeetan egin daiteke eta, gero, emaitzak ikaskide guztien aurrean kontrastatu eta eztabaidatu.

Garrantzitsua da **modu erlatiboan egitea**, hau da, ikasleen, irakasleen, amen eta aiten artean dauden emakumezkoen kopurua esparru horietan erabakiak hartzen dituzten postuetan dauden emakumeekin alderaturik. Esparru feminizatu batean egiten dugu lan eta esparru horretan emakumeak nagusi dira eta, ondorioz, datu absolutuek gure ikasleak nahas ditzakete. Adibidez: pentsa dezakete berdintasuna dagoela koordinazioan/ordezkaritzan gizonezko bat eta emakumezko bat egoteagatik, hau da, gizonezko hori gizonezko bakarra denean eta harekin batera bederatziz emakumezko badira. Horregatik, eskatuko diegu honako hau biltzea:

- ▶ Ikasleen eta irakasleen, jantokiko eta autobusaren begiraleen, guraso elkarte... banaketa, sexuaren arabera (etapaka, zikloka, modalitateka, departamentuka, irakasgaika...)
- ▶ Erantzukizuneko postuen banaketa, sexuaren arabera: eskola kontseilua, zuzendaritza taldea, zuzendaritza organoak, guraso elkartearen batzordeko karguak (burutza, idazkaritza, diru-zaintza...), ordezkariak, entrenatzaileak...

Azterlanak honako hauek hartuko ditu kontuan: ehunekoak antzekoak diren, emakumezkoen eta gizonezkoen artean orekarik eta ordezkari-tzarik dagoen, emakumezkoak zein postutan dauden... Hala behar bada, zergatik dagoen gizonezko gutxiago Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, zergatik dagoen emakume gutxiago zuzendaritza postuetan... Ildo horri jarraikiz, azterlana elkarriketa pertsonalekin osa daiteke; behatutako banaketa gerta dadin pertsonak ematen dituzten arrazoen edo azalpenen gainekoak izanen dira elkarriketa horiek: motibazioa, zailtasunak...

"AZKEN BERRIAK: GIZONEZKOA ALBISTE DA, ETA EMAKUMEZKOA?"

Ikasle bakoitzak komunikabideetan (lehentasunez egunkarietan,



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetza **lantzen**

gure herriaren albuma

Ikastetxeari "erradiografia" ateratzeko landu dugun ildo berean, gure herriaren album txiki bat egiten ahal dugu. Udalerriko **antolakundeak zuzentzen, lider izaten edo parte hartzen duten pertsonak argazkien bidez irudikatu behar dira**: ikastetxeak, udaletxea, ospitalea, bankuak, farmaziak, elkarteak, GKEak, enpresak...

Lana taldeetan bana daiteke: talde bakoitzak erakunde baten argazkia edo argazkiak lortu beharko ditu prentsa-zatietatik, erakunde baten web orritik edo ikasleek berek ateratuko argazkietatik... Ikastaldean argazkiak prest direnean, album bakarra osatuko dugu eta hartan **aztertu ahal izanen dugu herri horretako ordezkari-tza postuetan zenbat emakumezko eta gizonezko ageri diren**:

- Zenbait esparrutan gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira? Zeinetan? Non daude gizonezkoak? Eta emakumezkoak? Zergatik?
- Zer behar da postu horiek betetzeko? Emakumezkoek eta gizonezkoek modu berdinean ditugu ahalmen eta ezagutza horiek? Gizonezkoek eta emakumezkoek harreman, laguntza... berak ditugu?
- Etorkizunean postu horietako baten bat bete nahi dugu? Zein, neskatoek? Zein, mutikoez? Zergatik? Nola presta gaitezke horretarako?...

ereduak, erreferenteak

Jarduera hauetako askok agerian uzten dute maiz neskatoek ez dutela ez erreferente ez erdunik izaten emakumezkoek erabakiak hartzerakoan lider izateari eta parte hartzeari dagokionez. Adin horretan, inguruan erreferenteak "bilatzen"

dituzte eta giltzarri izaten da eskolan aurkitzen duten errealitatea (irakasle emakumezkoak edo irakasle gizonezkoak?, zuzendari gizonezkoa edo zuzendari emakumezkoa?, nor dago jantokian?...), eta komunikabideetan ikusten dituzten ereduak: marrazki bizidunak, programak, albisteak, iragarkiak...

hitza hartu

Parte hartzen parte hartuz ikasten da. Horretarako, interesgarria da parte-hartzeko simulakroak antolatzea. Adibidez, **Eskola Kontseiluko bilera bat, udaleko osoko bilkura bat, etab. ikasgelan antzeztea** gure ikasleendako berria eta interesgarria izan daitekeen gairen baten gainean eztabaidatzeko eta txandakatzea bilera moderatzeko postuetan, taldeen eledun postuetan, ondorioak prentsari ematera koetan... neskatoek eta mutikoek egin izan horiek bete ditzaten.

Jarduera hauen helburua da **parte hartzeko eta erabakiak hartzeko organoetan parte hartzen irakaslea**. Ikastea hitza jendaurrian hartzen, nor bere interesak defendatzen, zerbaitekin ados egon gabe argudioekin hari kontra egiten, erabakiak hartzen... Horretaz gainera, aukera izanen dugu **neskatoek eta mutikoek parte hartzeko dituzten moduak aztertzeko**, batzuek zein besteek nola komunikatzen duten ikusteko, besteen txandak errespetatzen dituzten ikusteko, neskatu bat edo mutiko bat haien ordezkari izatea errespetatzen duten...

"normala" alderantzikatu

Inbertsioaren proba tresna oso eraginkorra da egoera desberdin eta sexistak identifikatzeko eta datuak interpretatzeko hezkidetzaren eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren ikusmoldeak abiatu. Kontua da, sexuz aldatzen denean, "normalizat" jotzen dugun egoera batek normal izaten segitzen duen edo, aitzitik, arraroa egiten zaigun, ez dugun gustuko, gogaitzen gaituen... Modu batean baino gehiagotan egin dezakegu: argazkiekin edo irudiekin, "Mundua alderantziz" jardueran bezala, edo pertsonaien sexua aldatuz albiste bat idazterakoan, ipuin bat kontatzerakoan, eszena edo ekitaldi bat deskribatzerakoan, etab.

Interneteko komunikabideetan...) agertu den albiste bat aukeratu eta klasera eramanen du. Taldeetan, ekarri dituzten albisteak aztertu eta hiru galdera hauei erantzunen diete:

- ▶ **Albistearen zer esparru edo sailetakoa da?** Kultura, politika, kirola, gizarte, ekonomia...
- ▶ **Nor da albistearen protagonista?** Gizonezkoa edo emakumezkoa da? Haren izena esaten da edo norbait hori anonimoa da? Nola izendatzen dira?
- ▶ **Zergatik da albiste?** Albistearen protagonista aktiboa da (zerbait egin du) edo protagonista pasiboa da (zerbait gertatu zaio)? Albiste da zerbait lortu duelako edo bestearekin duen harremanagatik? Zergatik zuzentzen eta hartzen ditu erabakiak edo zergatik ezkontzen da, dibortzitzen da...?

Bateratze lanean, aztertuko ditugu:

- ▶ Ikasleek ekarritako albiste guztiak batuz, osotara, zenbat emakumezko eta zenbat gizonezko diren albisteetako protagonista.
- ▶ Pertsona horiek zein esparrutan diren protagonistak, gizonezkoak zein eremutan diren gehiengo eta emakumezkoak zeinetan. Gizonezkoak gehiengo diren eremuetan ere jarduten dute emakumeek? Hala bada, zergatik ez dira komunikabideetan agertzen?... Eta alderantziz, halakorik gertatzen bada.

"MUNDUA ALDERANTZIZ"

Egunkari bateko orrialde batzuk hautatu (ikastalde bakoitzak politika, ekonomia, kirol, gizarte... ataletakoak har ditzake): **gizonezkoak ageri diren argazkietan gizonezkoak kendu eta haien ordezkari emakumezkoak jarri eta emakumezkoak ageri direnetan, emakumezkoak kendu eta gizonezkoak jarri**; helburua da gure ikasleengan zer ondorio duten aztertzea. Modu batean baino gehiagotan egin dezakegu:

- ▶ Albisteetako argazkiak kendu eta haien ordezkari egunkarietan, aldizkarietan, Interneten... ageri diren **persona ezagunen** argazkiak jar ditzakegu.
- ▶ Gizonezkoen argazkiak kendu eta haien ordezkari **jardueran beretan diharduten emakumezkoenak jarri**. Albistearen protagonista txirindulari gizonezko bat bada, bilatu txirindulari emakumezko baten argazkia. Protagonista kantari emakumezko ezagun bat bada, bilatu kantari gizonezko ezagun bat. Eta abar.
- ▶ **Ikasgelan** gizonezkoak protagonistak diren egoerak neskatoek **antzeztea** eta emakumezkoak protagonistak direnetan mutikoek antzeztea. Karakterizazioak erretratatzeko eta aldatzen ari garen egunkariari itsastea. Adibidez, prentsan ageri den argazkia 11 gizonezko eta emakumezko bat dituen Europako goi-bilera batekoa bada, atera argazki bat 11 neskatorekin eta mutiko batekin (hartarako jantziak edo mozturrotuak), eta egunkarian agertu dena ordezkatu.

Hala eginez gero, egunkari horretan albiste ekonomiko, politiko eta kirolekoen protagonistak emakumezkoak izanen dira eta mutikoak goi-bilera ekonomiko baten "nota ezberdina" izanen dira edo bigarren mailako rolak izanen dituzte ("azafatoak" Frantziako Itzulian...). Horrek guztiak balioko digu emakumeek zein gizonek komunikabideetan duten protagonismoaren gainean hausnartzeko eta errealitatearen isla zehatz diren edo ez jakiteko. Era berean, ikusteko ikasleek erresistentziarik jartzen dioten ospeko postuetan emakumezkoek rol handiagoa izateari: **arrotza egiten zaigu egunkari hau? Gustatzen zaigu? "Arrunta" bezain ohikoa egiten zaigu? Zergatik?**

BOTERE PERTSONALA, LIDERGOA, PARTE-HARTZE SOZIALA ETA TALDE LANA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - DBH



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Lehen Hezkuntzarako adierazitako jarduerak oso erraz egin daitezke etapa honetako ikasleekin baldin eta adinari eta Bigarren Hezkuntzako curriculumari egokitzen bazaizkio. Jarraian aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko.

"EMAKUMEZKOEN HERRIALDEA"

Gezurrezko zenbait egoera eztabaida daitezke ikasgelan; egoera horietan **emakumezkoek gizonzkoek ohikotasunez betetzen dituzten postuak edo tokiak hartuko dituzte**. Egoera hori ikastalde bakoitzarekin landuko dugu eta galdera hauek egingen dizkiegu:

- ▶ Zer nolakoa iruditzen zaizue egoera hau? Ongi edo gaizki? Bidegabea edo zuzena? Gerta daitekeena edo gertaezina? Nahi duguna edo nahi ez duguna?... Zergatik?
- ▶ Zer ondorio izanen luke? Errealitatea desberdina izanen litzateke? Hobe edo okerragoa izanen litzateke? Egoera horretan, zer egingen lukete gizonzkoek? Zergatik?

Eredu modura, landu daitezkeen gezurrezko egoeretako batzuk honako hauek izan daitezke:

- ▶ Nafarroa, emakumezkoak nagusi diren Parlamentuarekin, Gobernuarekin eta alkatetzekin.
- ▶ C.A. Osasuna, emakumezko bat buru duela, emakumezkoek soilik osatutako gobernu batzordea duena eta jokalaria eta entrenatzaile emakumezkoek osatutako lehen mailako kirol taldea duena...
- ▶ Herrialde bat, zeinetan gizonzkoek sartzerik izanen ez duten elkarrekin gastronomikoak dituen.
- ▶ Herrialde bat, zeinetan emakumezkoak diren protagonistak (desfilatuz, korrika eginez...) eta gizonzkoak espaloietan dauden, txaloka.

"Errealitatea alderantzikatzen dugun" egoera hauek bi azterketa egiteko aukera ematen digute. Batetik, gure **ikasleek zer erreakzio duten behatu eta aztertze**ko baliagarria zaigu:

- ▶ Zer iritzi dute mutikoek? Gustatzen zaie? Erresistentziarik, isekarik... bada? Nola sentitzen dira? Nola adierazten dute? Gizonzkoak gehien goa diren gaur egungo egoerarekin lotzen dute? Zer iritzi dute?...
- ▶ Zer diote neskatok? Eroso daude? Nola adierazten dute? Desiragarria gertatzen zaie? Interesatuko litzaieke esparru horietan bakarrik egotea? Gaur egungo egoerarekin lotzen dute? Zer iritzi dute?...

Bestalde, **behatu dezakegu ea aldaketa adierazgarriak gertatzen diren** arlo hauetan: herrialdea nolakoa izanen litzatekeen; emakumezko-

emakumezkoen gobernua

"Emakumezkoen herrialdea" jardueran biltzen da **Gioconda Bellik** izen bereko eleberrian planteatutako ideia, zeinetan egileak mundua irudikatzen duen emakumezkoek gobernatu balego bezala. Liburu hau irakurri eta komentatzea ere lan ona da.

boterearen irudiak

Errealitatea agerian uztea tresna interesgarria da hezkidetzaren eta emakumezkoen eta gizonzkoen arteko berdintasunaren ikusmoldeetik abiatuz begiak irekitzeko. Botere postuetan eta erabakiak hartzeko postuetan dauden emakumezko eta gizonzkoen kopuruari dagokionez, errealitatea agerian uzteko helburuarekin **argazki erakusketa bat antola dezakegu, boterearekin edo zuzendaritza eta ordezkaritza postuetan daudenekin zerikusia duten irudiekin**.

Ikasle bakoitzak gai honekin zerikusia duen argazki bat aukeratu eta ekarri beharko du. Argazkiak azaldu ondoren, honako hauek aztertuko ditugu:

- Irudien banaketa, sexuaren arabera. Gizonzkoak gehien goa dira? Zein esparrutan?
- Gizonzkoak nagusi diren argazkiak ageri diren esparruetan, badira botereko eta erabakiak hartzeko postuetan dauden emakumezkoak, baina gutxiago agertzen dira hedabideetan? Zergatik ez dira agerian jartzen?
- Boterean emakumerik ez dagoen esparruetan (ez argazkietan, ez errealtetan), ageri da emakumerik lanean, beste maila batzuetan parte hartuz? Hala bada, zergatik ez dira boterera igozten? zer egin daiteke egoera hori aldatzeko? orekatzea nahi dugu? ona

da orekatzea?

- Zer dira "beirazko sabaia" eta "zoru itsaskorra"? Zer zor zaizkio? Nola funtzionatzen dute? Nola gaindi daitezke?

"nahi dut" ... "egin dezakezu"

Botere pertsonala eta parte-hartzea sustatzeko, gure ikasleek **helburuak** eta haiek lortzeko **estrategiak zehazten** eta **erabakiak hartzen** ikas dezaten, jarduera bat egin dezakete, zeinetan elkarri lagunduko dioten ikasle bakoitzaren ahalmen eta potentzialtasunak identifikatzen. Horretarako:

- Neskato eta mutiko bakoitzak txartel batean idatziko du egin nahiko lukeen zerbaite, zertan parte hartu nahiko lukeen, zer antolatuko nahiko lukeen...
- Taldeetan, ikaskideek esanen diote zer jarrerak, trebetasunak, abileziak eta abarrek lagun diezaizketen beren helburua lortzen eta zer bultzatzea dezakeen. Berearekin batera, pertsona bakoitzak gutxienez txartel bat idatziko du.
- Horretaz gainera, halako kontseiluak gehi ditzake: ona ote den elkarlana bilatzea, taldean lan egitea eta abar. Garrantzitsua da aztertzea ea alderik dagoen neskatoek eta mutikoek ekartzen dutenaren artean, gauzak nola esaten zaizkien, etab. generoko estereotipoei eta roiei erantzuten dieten edo ez ikusteko.

guneen erabilera

Garrantzitsua da ikaskuntza honetan lehenagoko beste ikaskuntza batzuetan egindako hausnarketa gogora ekartzea: eskolagunea erabili behar da hezkidetzara eta berdintasuneko ikusmolde batetik abiatuz. Neskatoek eta mutikoek ikastetxeko gune eta baliabideak modu orekatuan erabili ditzatela sustatzen badugu, parte hartzerako eta botere pertsonalerako hezten ariko gara.

- Gelak, laborategiak, lantegiak, arbela... Jolastokia eta jolasak... Gimnasioak, kiroldegia...
- Ordezkaritza guneak, hala nola, megafonia, ekitaldien aurkezpena...

en eta gizonezkoen bizitza nola aldatuko litzatekeen; gizonezkoekin zer gertatuko litzatekeen; giza harremanek zer bilakaera izanen luketen...

"ERABAKIAK HARTZEKO LANTEGIA"

Ikasle bakoitzak rol bat hartuko du proposatutako elkarrizketan edo egoeran. Gure ikasleei emanen dizkiegu nesken artean soilik, nesken eta mutilen artean eta mutilen artean soilik gertatzen diren egoerak. Egoera horietan **ikasi beharko dute baietz esaten, ezetz esaten, eztabaidatzen eta beren interesak edo iritziak defendatzen eta abar**. Esate baterako, landu daitezkeen egoera batzuk honako hauek dira:

- ▶ Neskato batek beste neskato bati esan dio ikasgelako ordezkariarako aurkeztu behar duela. Nahi du, baina bere burua aurkezteaz lotsatzen da.
- ▶ Bi mutikok beste bati esan diote ordezkariarako aurkeztu behar duela. Ez du nahi, baina lagunek presionatu egiten dute.
- ▶ 3 mutikoz eta neska batez osatutako taldeak elkarrekin egin behar duten lan batean, mutikoetako batek esan dio neskatoari berak bildu behar duela idatziz taldean esandakoa. Neskatoak ez du nahi.
- ▶ Mutiko batek beste bati esan dio haren lagun izan nahi duela gustukoa duelako nolakoa den eta nola jarduten duen. Beste mutikoak erantzun dio jadanik baduela lagun-taldea.
- ▶ Mutiko batek neskato bati esan dio etxera lagunduko duela eskola bukatu ondoren. Neskatoak ez du nahi. Tematurik, mutilak oso gustuko duela esaten dio.
- ▶ Neskato batek kolonietara joan nahi du, udan. Gurasoek zeharka esaten diote hobe duela ez joan. Konbentzitu behar ditu.

Genero sozializazioan, neskatoek eta mutikoek ez dute ikasten neurri berean eta egoera berberetan baietz eta ezetz esaten ikasten. Jarduera honekin nahi dugu gure ikasleek ikastea beren erabakiak hartzen eta jarduten haiek nahi duten moduan, beren bizitza proiektutik abiatuz pentsatzen dutenari jarraikiz eta gainerakoak errespetatuz, generoak baldintzatu gabe baietz edo ezetz esan dezaten.

"BURUZAGIAREN BILA"

Bakarka prestatuko ditugu Far Westeko "Wanted" kartelaren antzeko iragarkiak. Ikasleek beren talderako bilatzen duten liderraren profila bildu behar dute iragarkian, baita hura identifikatzeko (marrazki bat, silueta bat, zati bat...) irudi fisiko generikoa ere. Gero, kartelak batera erakutsiko dira, eta haietan adierazitako ezaugarriak erkatu eta komentatuko dira. Horrek aukera emanen digu aztertzeko **zein lidergo-eredutan sozializatzen diren gure ikasleak** eta eztabaidatzeko zein diren gehien errepikatzen diren ezaugarriak:

- ▶ Zerrendetan ageri dira ezaugarri "maskulino" hauek: autoritatea, agintzeko dohainak, izaera, sendotasuna, erabakia, boterea, harremanak...? Eta beste ezaugarri "femenino" hauek: komunikazio ona, enpatia, entzutea, koordinazioa, lankidetzara, pazientzia, hurbiltasuna, ulermena...? Zein errepikatzen dira gehiago eta zein gutxiago? Zergatik?
- ▶ Gehien errepikatzen diren ezaugarriak ohikoagoak dira gizonezkoengan emakumezkoengan baino? Zergatik? Emakumezkoek ikas ditzakete? Ikasi beharko litzateke? Eta gizonezkoek besteak? Zergatik?
- ▶ "Buruzagia bilatzen da" jardueraren laburpena eginen dugu, neskatok alde batean eta mutikoak bestean direla. Bada alderik? Neskatoena "femeninoa" eta mutikoena "maskulinoa" da? Lidergo mota bakarrak egon beharko luke? Edo mota bat baino gehiago, pertsonen arabera? Zergatik?

BOTERE PERTSONALA, LIDERGOA, PARTE-HARTZE SOZIALA ETA TALDE LANA

DERRIGORREZKOA EZ DEN BIGARREN HEZKUNTZA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako adierazitakoak etapa honetako ikasleekin erraz egin daitezke, baldin eta Bigarren Hezkuntzako dago-kion curriculumera eta ikasleen adinera egokitzen badira eta, bereziki sartzen edo gehitzen badira laneko eta gizarteko datu estatistikoak, erabakiak hartzeko eta parte hartzeko esparruetan emakumezkoak eta gizonezkoak dagoen erakusten dutenak. Jarraian aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko.

"NOR ATERATZEN DA ARGAZKIAN"

Helburua azterlan bat egitea da jakiteko ikasleen inguruan zenbat emakumezko eta gizonezko dagoen erantzukizuneko postuetan eta erabakiak hartzen direnetan, saihestuz horrela ideia faltsuak, mito sexistak eta berdintasunezko irudipenak. **Egoera benetako datuekin utzi nahi da agerian**, aztertuz gure inguruko erakunde eta antolakundeetan zenbat emakumezko eta gizonezko dagoen erantzukizuneko postuetan eta erabakiak hartzen direnetan: Nafarroako Gobernua, udalak, enpresak, sindikatuak, GKEak, elkarteak, unibertsitatea, kirola, kultura, etab.

Ikasleek informazio hori ikertu eta bilduko dute eta, bildurik dagoela, argazki horren zergatia aztertuko dugu.

- ▶ Zergatik dago emakumezko gutxiago? Ez diete argazkian egoten uzten? Ez dute argazkian egon nahi? Ezin dute argazkian egon? Zer zailtasun dute argazkian egoteko? Zergatik?
- ▶ Garrantzitsua da egoera hau aldatzea eta argazkian dauden gizonezkoen eta emakumezkoen presentzia orekatzea? Zergatik?
- ▶ Argazkia denboraren iraganarekin berez orekatuko da? Zerbait egin behar da oreka dadin? Zer egin daiteke? Zer egin dezakete ikasleek?

"EMAKUMEZKOAK BURUZAGI, GAUR"

Taldeka, ikasleek gaur egungo emakume buruzagi baten biografia (ospea duen emakume bat, zerbaitetan erreferentea... dena) klasean aurkezteko lan egingen dute. Aurkezpenak egin ondoren, honako hauek aztertuko ditugu:

- ▶ Zein emakume aukeratu dute? Zein esparrutan? Zertan nabarmentzen dira?
- ▶ Familiako harremanak direla-eta (familiako enpresa, etab.) edo beren proiektu eta lorpen pertsonalengatik betetzen dute postu hori?
- ▶ Zein ibilbide profesional segitu dute? Beren lankide gizonek ez bezalako zailtasunak gainditu behar izan dituzte? Beren lankide gizonek



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

lidergo berriak

Forum-zinema tresna interesgarria da errealitateak ezagutzeko, ereduak aztertzeko eta alternatibak proposatzeko. Une honetan, zinemaz baliu gaitzeko **lidergo eredu**en gainean eztabaidatzeko eta buruzagi, agindu, zuzendu... terminoekin loturik dauden genero estereotipoak zalantzan jartzeko.

Horretarako, bi film ikus ditzakegu: bata, ohiko lidergoa erakusten duena (oro har oso "maskulinoa"), eta bestea, beste lidergo-modu batzuk ("femeninoagoak") praktikan jartzen dituenak.

Horretarako gomendagarriak diren film batzuk honako hauek dira:

- **Ohiko lidergoa** erakusten dutenak: La Dama de Hierro; El padrino; El diablo se viste de Prada, Braveheart...
- **Buruzagi izateko beste modu batzuk**: El club de los poetas muertos, Patch Adams, Invictus, Chocolate, El discurso del Rey...

Bi filmak eman ondoren, talde lana egingen dugu honako item hauek identifikatu eta eztabaidatzeko:

- Lidergo-modu bakoitzaren, lider bakoitzaren ezaugarriak.
- Lidergo-modu bakoitzaren abantailak eta desabantailak.
- Buruzagi izateko beharrezkoak eta ezinbestekoak dira ohiko lidergo "maskulinoaren" ezaugarriak? Hala bada, gara daitezke?
- Gizonezkoek izan badituzte ezaugarri horiek? Zergatik dauzkate? Nola garatu dituzte? Beti positiboak dira?
- Beharrezkoak dira lidergo berri eta "femeninoagoen" ezaugarriak? Emakumezkoek izan badituzte ezaugarri horiek? Zergatik dauzkate? Ez lituzkete gizonezkoek garatu behar? Garatzerik badute?

Azkenean, taldeek lortutako ondorioak partekatu eta haien gainean hausnarketa eginen dugu. Helburua, hauxe:

- Buruzagi baten atzean egon eta "naturalizat" hartzen ditugun ezaugarrien atzean dauden genero estereotipo eta rolak identifikatzea.
- Ikustea izan badirela lidergo-modu bat baino gehiago, helburuak lortzeko modu bat baino gehiago, emakumezko nola gizonezko moduan dauzkagun eta/edo bultza ditzakegun ezaugarriak eta trebetasunak erabiliz.

"gaur nik neuk egingen dut"

Gure ikasleek ikastetxeko edo udalerriko jarduera asko antolatu eta egin ditzakete. Eta ikastetxeak gure ikasleak horretan jar ditzake lanean.

- Aukera hobezina **ikastetxeko festak** dira; haietan ikasleen parte-hartzea eta erantzukizuna susta daiteke jardueren antolaketa.
- Era berean, ikastetxeko lehen etapetako neskato eta mutikoendako jarduerak diseinatzeko eta koordinatzeko ardura beren gain har dezakete: an-tzerkia, ipuin kontalaria, kirol torneoak, paseoak...

Hori hala izanik ere, ezinbestekoa da **genero-joerak dituzten atazen banaketarik ez egoteari** adi egotea. Saihesteko modu bat da ataza horiek antzeko eginkizunak edo eginkizun trukagarriak dituzten bikote mistoen artean egitea.

parte hartzea ikasgelan

Neskatoen parte-hartzea eta lidergoa sustatzeko, beharrezkoa da neskatoek eta mutikoek ikasgelan parte hartzea eta diagnostiko horrek esandakoaren arabera jokatzeko:

- Zenbatetan parte hartzen dute neskatoek? Nola egiten dute?...
- Zenbatetan parte hartzen dute mutikoek? Nola egiten dute?...
- Zenbatetan zuzentzen natzaie neskatoei? Zein doinutan? Zertarako? Zenbateko iraupenarekin?...
- Zenbatetan zuzentzen natzaie mutikoei? Zein doinutan? Zertarako? Zenbateko iraupenarekin?...
- Nola erutzen dira lantaldeak? Nork hartuko ditu bere gain idazkaritzako lanak? Nor izanen da eledun?...

baino uko pertsonal eta familiar gehiago egin behar izan dituzte?

- ▶ Lidergo-estilo "maskulinoa" dute edo "gizonek bezala" zuzentzen dute edo buruzagi dira edo bestelako lidergo-estilo "femeninoa" dute?
- ▶ Bere lankide gizonek egiten ez dituzten gauza desberdinak egiten dituzte? Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako proiektuak, politikak... garatzen dituzte?

"BEIRAZKO SABAIA"

Elkarrizketetan oinarritutako rol jokoa, **erantzukizuneko postu bat profesionalki sustatzeko.**

- ▶ Ikasleek rol bat baino gehiago bereganatuko dituzte: elkarrizketatzaileak (hiru lagun) eta elkarrizketatuak (beste hiru lagun).
- ▶ Elkarrizketatzaileen taldeak honako hauei buruzko galderak prestatuko ditu: alderdi pertsonalak eta prestasuna; lidergo ahalmena eta aginterako dohainak; zaletasunak eta parte hartzen duen bestelako jarduerak.

Komenigarria da mutikoek soilik, neskatoek soilik eta neskato-mutikoek osatutako elkarrizketatzaile taldeak izatea. Elkarrizketa jendaurrean antzetzuko da. Antzertu ondoren, aztertuko da:

- ▶ Alderik izan da galderetan, esate baterako, haietako batzuetan gehiago nabarmenduz elkarrizketatua neskatoa edo mutikoa izan dela bereiziz?
- ▶ Neskatoen eta mutikoen erantzunetan alderik izan da?
- ▶ Erantzun berberak modu berean baloratzen dira eta eragiten dute nesketan eta mutikoetan?

Helburua gure enpresa erakundeen beirazko sabaia osatzen duten faktoreak identifikatzea da: enpresa-kultura matxista; emakumezkoak eta gizonezkoak maila berean ukitzen ez dituzten familia mailako erantzukizunak; emakumezkoak sare sozialetan ez egotea, etab.

"TRIBUNA IREKIA"

Gune bat tribuna edo "Speakers' Corner" modura definituko dugu (ikasgelan, ekitaldi aretoan, gimnasioan, patioan... dagoen kutxa bat, aulki bat... izan daiteke). **Ikasle bakoitzak hitzalditxo bat prestatuko du** gainerako ikaskideak konbentzitzeko hark aukeratutako alderdi, iritzi edo proiektu baten gainean. 7 minutu izanen ditu jendaurrean hitz egiteko eta 3 minutu ikaskideek egindako galderei erantzun eta ikaskideen sostengua edo arbuioa lortzeko. Helburua denek hitza hartzea da, ikasleek gainerakoak konbentzitzeko jendaurrean hitz egitea ahozko hizkuntza eta ahozkoa ez dena erabiliz.

Ariketa honek, besteak beste, honako hauek identifikatzen eta aztertzen lagunduko digu:

- ▶ Gure ikasleek jendaurrean ideiak azaltzeko eta entzuleak konbentzitzeko dituzten erresistentziak, indarguneak eta ahuleziak. Erresistentzia handiagoa da neskatoengan mutikoengan baino? Neskatoek eta mutikoek zailtasun eta baliabide berak dituzte? Zergatik?
- ▶ Jendaurrean berdin erantzuten du hizlari emakumezko batek eta hizlari gizonezko batek? Nola erantzuten dute neskatoek? Eta mutikoek? Zergatik?
- ▶ Neskatoek eta mutikoek erabiltzen dituzten komunikazio-estilo ahozkoen eta ahozkoak ez direnen artean bada alderik? Zein estilok izaten du babesik handiena? Noren artean? Zergatik?